



## HEZKUNTZA SAILA

Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Universidades  
e Investigación  
Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariaren 2020ko azaroaren 26ko **EBAZPENA**, 2020-2021 ikasturterako Ikasiker lankidetzatza-beketan zuzendu beharreko eskaerak zerrendatzen dituen.

## GERTAKARIAK

**Lehena.-** Hezkuntza sailburuaren 2020ko irailaren 15eko AGINDUAREN bidez Ikasiker lankidetzatza-beketarako deialdia egin zen, 2020-2021 ikasturterako (2020ko irailaren 25eko 190. zk.ko EHAA).

**Bigarrena.-** Aginduak 9. artikuluan xedatutakoa jarraituta, eskaerak aurkezteko epea 2020ko urriaren 26an bukatu zen.

**Hirugarrena.-** Aginduak 10.4 artikuluan xedatzen duenez, eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio zuzenketak egin ditzan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluari jarraituta.

Ondorioz,

## EBAZTEN DUT:

**Lehena.-** I. eranskinean aipatzen diren zuzendu beharreko eskaeren zerrenda argitara ematea.

**Bigarrena.-** Hamar eguneko zuzentze-epea ezartzea. Zuzentze-epea urriaren 27tik abenduaren 9ra izango da, biak barne.

**Hirugarrena.-** Jakinaraztea, epe hori igaro eta gero, interesdunak agiriak ez baditu aurkeztzen eskaerari uko egiten diola ulertuko dela.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 26a.

Miren Artaraz Miñón

UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KORDINAZIOKO ZUZENDARIA